

JON AZPILLAGAREKIN SOLASALDIA

Aurtengo bertsolari txapelketa nagusia amaitu barri, testigu berezi batengana jo dogu critzi bila. Hona izan dogun alkarrizketa:

KARMEI.- Aurtan inoiz baino jendetza handiagoa izan ete dan dinoe bertsoak entzuten. Zer esango zenduke zuk horrelako jendetza ikusirik?

AZPILLAGA.- Ba, pozgarria izan zan. 8.000 pertsona edo egon zirala han esaten dabe; baina ni gogoratzen naz 1960.ean Arenalean Bizkaiko txapelketa ospatu zanean, orduan B. Enbeitak irabazi eban eta ni bigarren izan nintzan. Ba, orduan esaten dabe 10.000 lagun edo egon ete ziran. Horregaitik aurtengoa handitzat joten dabe, baina ha handiagoa. Eta beste gauza bat: Arenalean dohainik izan zan, eta aurtan sarrera ordaindu egin behar izan da. Bestela aurtan ondo eraturik egon da; jendetza ikaragarria eta batez ere gazte asko. Hori izan da pozgarriena.

K.- Aurtengoak, aurreko txapelketekin konparatuz, zelako maila izan dau, batez ere finala?

A.- Goizean hasi eta amaitu, ez da izan inoiz baino kalitate handiagoko bertso saioa. Lizasok egin ebana hau da: hasieratik amaitu arte beti bardin-bardin egon zan; horregaitik irabazi eban. Lopategi ez zan egon bere mailan, eta Amuriza ere ez. Nik uste

dot saio batzutan sekula baino bertso hobek egon dirala; beste batzutan, barriz, sekula baino txarragoak. Ez da saio berdintsua izan, gorabeheratsua baino. Normalean esango neuke aurreko txapelketa aurtengoa baino hobea izan zala.

K.- Lehen aitatu dozu, baina antolaketaz zeozer gehiago esatea nahi neuke. Hasieran gorabeherak izan ziran. Aurten egin dan erara ala aurreko urteetako erara hobeto? Aurrerapenik egin da horretan?

A.- Bertsolarientzat ez dator ondo bertso bakoitzean bertsolariak lortzen duen puntuazio jendeak jakitea. Hori bertsolarientzat txarra da. Baina nik uste dot jendea, gehien bat, horrexek eroan dauala belodromora. Euskal Herriko jendea horixe da: apostu eta joko zalea; hor ebilen kontuak eta puntuak ateratzen kalkulagailuen laguntzaz. Hori sekula ikusi ez dan gauza bat izan da eta jendearen aldetik ona izan dala esan behar. Antolaketa aldetik ere hor badago ezbardintasunik. Hemendik aurrera zelan egin behar dan? Ni neu, lehen ere ez neban nahi eta txapelketara ez naz gehiago joango, baina ez neuke nahi bertso bakoitzaren puntuazioa emoten dan txapelketa batera joaterik. Baina bertsolariak eurak izan dira eskatu dabena eta...

K.- Nik ez dakit egia dan, baina hor zurrumurru batzuk entzun dira, Lopategik saio bat amaituta jendea epaileekin bat etorri ez eta txistuka ekin eutsanean, norbaitek seinale bat egin eutsala hiru atzamar erakutsiz; eta Lopategik txarto ulertu ebala edo...

A.- Bai, bere lagun batek jende artetik hiru atzamar erakutsi eutsazan; ziur asko hirugarren egoala edo pentsatuko eban, baina



Azpillaga

ez zan hori, hiru puntu atzetik ebilela baino. Lizasogandik hiru puntutara egoala. Horregaitik hasi zan Lopategi kartzelako gaien bederatzi puntuko bertsoa kantatzen. Eta nik uste dot hamarrekoko handia edo zortziko handia hartu baleu, Lopategik errez irabaziko ebala txapelketa hori, Lizasok ez eban aparteko zerik egin eta; bertso normalak egin zituan.

K.- Lizaso txapeldun. Baina goi-mailako bertsolaria al da?

A.- Bai, bai. Lizaso bertsolari oso ona da. Lizasok, zortziko handian, zortziko txikian, hamarrekoko handian, hamarrekoko txikian garbi erakutsi dau bere maila; txapelketa honetan ez dakit bera baino hobarik neurri horeetan izan danik. Bai Lazkano ere oso ona da neurri horreetan... Lizasok ez dau kantatzen hortik kanpora; ez bederatzi puntukoan eta ez bertso luzean; eta aprobatu ere ez dau egiten. Hor ez dakit zelakoa izango dan. Baina plazan dabilzan donuetan bertsolari ona. Ez oraingo txapelketan bakarrik, lehendik ere jakina zan, Lopategik eta Amurizak irabazten ez baeben, bera izango zala irabazle; hau da: badaukala txapelketa bat irabazteko ainako kategoria.

K.- Gai dramatiko edo lirikorik ezak bizkaitarrei -Amurizari, Lopategiri eta Enbeitari- kalte egin deusela entzuten da hor zehar.

A.- Ez dakit gai dramatikorik izan zan ala ez, baina nik horri ez deusat garrantzi handirik emoten. Gai dramatikoa ez zan Amuriza eta Lopategiri ezarritakoa, bata botikarioa eta bestea tabernaria. Ez zan dramatikoa, baina han egin zan saiorik onena bai. Horrek esan nahi du, Lopategik eta Amurizak, ondo dagozanean, gai dramatiko beharrik ez daukela bertsoan ondo egiteko. Baina Amurizak ez eban egun ona izan. Eta Lopategi ere, ez zan bestetako mailan egon, baina han bai, gai haretan bai. Bai, gai dramatikoa izan balitz, hobeto aprobetxatuko eben. Eta Enbeitarentzat bai kaltegarria gai dramatiko-lirikorik eza. Enbeitasok hobia da horrelako gaietan besteetan baino.

K.- Han bertso bikain-bikainak ere zun ziran. Batez ere Lopategik eta Enbeitan egindakoak; ia olerki-mailako bertsoak; gitxitan, baina egin zituen. Zer uste dozu?

A.- Bai. Lopategik bota zituan bertso batzuk baina ikaragarriak, eta bai Enbeitak ere. Enbeitak ondo egon zan. Nik neure ustez hirugarren postuan edo jartzan neban. Nik puntu gehiago jasoko zituala uste neban, baina ez eutsen emon. Dana dala, Enbeitak bertso ikaragarriak bota zituan, baina arinak ere bai! eta horrek galdu eban. Hor goi-mailan joan balitz, bai Lopategi eta bai Enbeitak txapeldun izango ziran, baina dudarik barik. Horregaitik esan dot lehen ere ez zala txapelketa, hasi eta amaitu, bardin-bardin joan. Gorabeherak izan zituan, ikaragarriak izan ere.

K.- Gauza harrigarri bat jazo da aurten. Lizaso bera ere harriturik geratu ei zan: Lopategik doinu bat hasi eta Peñagarikanok beste batez erantzun. Zergaitik hori? Normalean holakorik ez da egiten.

A.- Ez. Behar bada Lopategi hasiko zan Peñagarikanori ezer esan barik. Hori pentsatu neban nik behintzat. Bertsolariak alkarri esan ohi deutse ze doinutan abestuko daben. Nonbait oraingoan ez eutsan esango. Lopategi hasi zanean doinu haretan, nik esan neban neure bostean: hori doinu hori seguru asko ez dau Peñagarikanok jakingo.

K.- Baina oso doinu ezaguna zan eta!

A.- Ezaguna bai. Baina doinua gitxi gorabehera jakiteaz ez da nahiko. Orduan gauza bi eroan behar dituzu buruan: bata doinuaren arloa eta bestea bertsoa egitea eta orduan erraz da galtzea. Horregaitik beste doinu bat hartu eban. Egin daiteke gainera. Horrek ez dauko zer-ikusirik.

K.- Baina hori ez da normalean egiten.

A.- Ez, baina zuk txapelketa baten kantatu zeinke zeuk nahi dozun doinuan. Zortziko handia eskatzen bada edo hamarreko handia, hori kantatu behar da, baina bertsolariak nahi dauan doinuan, nahiz eta lagunak doinu ezbardina aukeratu. Harek, ziur asko ez eban doinu haretan konfiantza handirik izango bere buruaz; horren arduraz bazagoz, errez da bertsoa ahaztea. Ni neuk ez deusatz inoiz entzun doinu hori Peñagarikanori.

K.- Orduan asmo txarrez ez eban egingo.

A.- Ez, ez! Bai zera! Harek ahal izan baeban kantatuko eban doinu horretan. Ez eban egin besteari kalte egitearren.

K.- *Lopategi goizean hain ondo egonik, arratsaldean beherantz egin eban. Zergaitik izan leiteke hori?*

A.- Nik uste dot urduritasunak eta erresponsabilitate ikaragarriak egin eutsela joko txar hori. Baekian goizean zenbat puntu aurretik egoan. Hortik urduritasuna sartuko jakon, eta asko jatsi zala uste dot. Gero ere egin zituan saio bat edo bi politak, baina kartzelako gaian oso baju egon zan. Batetik ez eban ezer esan eta bestetik poto ere egin eban. Txapelketa bat irabazteko bertso batzuk onak bota behar dira eta inoiz txarto egon ez. Lizasok egin ebancz. Honck bertso onak bota zituan, bajutxoagoak ere bai, baina txarrik bat bera ere ez. Beste aldetik potorik ez eban egin.

K.- *Ez ete litzake hobeto bertso onak, goi-mailakoak botatzen dituana txapeldun egitea, nahi-ta tartean poto edo akats banaka batzuk izan? Ez al dau horrek gehiago balio?*

A.- Plaza baterako bai. Plaza baterako entzungarriago eta pozgarriago izaten da hori. Esate baterako, Lazkao Txikik daukaz holarakoak; saio baten egundoko bertsoak botaten ditu, baina txarrik ere bai tartean. Txapelketa baten, ostera, txapeldun izateko bidcan bertso onak bota behar dira, eta eskaxatxoagoak ere botaten badira, honeck gitxi izan daitezela. Eta Lopategik ere ez zituan danak onak bota; ez zan urrun ibili, baina bere faltaz galdu eban. Bederatzi puntukoan asi zana, zortziko handi baten hasi balitz, berak irabaziko eban txapela.

K.- *Aurten gazteak ikusi ditugu hor punta-puntan. Zer uste dozu lehengoak baino hobeak dirala? Ezbardinak dirala?*

A.- Oso onak dagoz eta oso onak izango dira. Esate baterako aurten izan diran gazte bi horreek (baina beste bat ere badago: finalerako ate-atean geratu zan Euzkitze), Egaña eta Sarasua onak dira. Egaña da batez ere nire gogokoa. Urteera politik daukaz, xelebreak eta bizia da, errima ederrekoa. Sarasua ere oso ona da; pixka bat moteltxoagoa. Oraindino gaztetxo da eta ez

dauko bestearen indarririk, baina oso ona dator. Nik uste dot lehengo bertsolaritza baino hobea egingo dela.

K.- Gai beretik joaz, zer dimozu bertsolaritza klasikoa eta modernoari buruz? Zelan ikusten dozu eztabaida hau?

A.- Horri ez deusat nik garrantzirik emoten. Klasikoa izan modernoa izan, ona izan behar dau bertsolariak txapela jantziko badau.

K.- Eta Sarasuaz lehen esan dozu zeozer, hori bertsolari eskolatik dator, ez da?

A.- Sarasua oso ona da. Hori da bertsolari eskolako bakarra, ona urten dauana behintzat. Bizkaian badagoz beste batzuk, (Arriola anaiak etab. onak datoz...) Baina ona urten dauana Sarasua da. Egaña ez dator bertsolari eskolatik; Euzkitze ere ez.

K.- Hainbat ume dabiltza, ba, han-hor-hemen ikasten...

A.- Bai, eskolako bertsolaritzak umeen artean sartu dau bertso zaletasuna, eta bai jende artean ere. Horregaitik izan dala uste dot nik 8.000 lagun belodromora joatea. Sarasuak baditu atzetik bere antzekoak, anaia gazteagoa, Arantzazu Loidi eta beste batzuk. Baina ez dira hain onak. Bertsolari ona izateko, jaiotze egin behar da bertsolari; eskolan hori landu daiteke, baina besterik ez. Sarasuak, bertsolari-eskolara joan ez balitz ere, eta bertsolari giroan ibili, bardin-bardin urtengo eban bertsolari. Eskolak egiten dauana zera da: bertsolaritza zabaldu, indartu. Baina ona izateko berez izan behar dau.

K.- Txapela noiz etorriko da barrero Bizkaiara?

A.- Baleiteke hurrengo txapelketan etortea.

K.- Gipuzkoan gazteak gorantza datoz...

A.- Bai onak datoz, baina ez pentsatu, gero, hurrengo txapelketarako asko gorantz egingo dabenik. Piska bat bai. Baina Lopategi eta Amuriza ere gorantz joango dira aurtengoaz konparaturik. Enbeita ez. Nik uste dot Enbeitak berea emon ebal; eta merezi eban baino puntu gutxiago jaso zituala, gainera. Enbeita aurtan oso ondo egon da.

K.- Zaharrago izatea holako txapelketa baterako mesedegarri ala kaltegarri da?

A.- Errefleju onak behar dira eta burua argi. Lehenengo pentsatzen dana bertsoaren amaiera da eta gero aurretik hasi bertsoa egiten. Zahartzaroan sarri jazoten da, azkenengo puntua pentsaturik euki eta kantatu ahala, ahaztu. Horregaitik buru argia behar da eta errefleju itzelak neurria, errima... dana buruan eukiteko. Bertsolari gaztea izatea beti da hoba, landuta badago behintzat. Zaharrak ere bere malizia eukiten dau, baina argitasuna, bizkortasuna, alaitasuna... horreek gazteen zerak dira.

K.- Orain amaitzeko zeuri dagokizun itaun bat. Laster omenaldia izango dozu. Noiz, non eta zelan izango da hori?

A.- Hori Donostian izango da S. Sebastian egunean datorren urtarrilean. Urtean behin egiten da hori, urtero beñtsolari bat omenduz. Aurten Patxi Etxeberriari egin jako eta ni datorren urterako aukeratu ninduen. Uste dot urtarrilaren 18an izango dala, igandea da ta. Omenaldi hau Euskadi mailan egiten da, baina beti Donostian, hango jaien barruan sartuta dagoalako.

K.- Batzuk oraindik ez dakie garbi zu nongoa zaren: edo Berritxukoa, Ondarrukoa ala gipuzkoarra, danetik daukazu eta.

A.- Nik uste dot zerbait danetik daukadala. Jaiotzez Pasaikoa naz, San Pedrotarra; jaiotzez hangoa naz behintzat. Bizitzez, Berritxukoa nazela esan behar, hazi eta gazte denbora han emon neban eta. 23 urte arte bizi izan nintzan Berritxun. Gero Ondarrun bizi izan nintzan beste urte bi, 25 urte arte. Orain Mutrikun beste 25 urte daroadaz. Beraz, danetik piska bat.

K.- Baina lana beti Ondarrun.

A.- Bai, beti Ondarrun. Nire aita ondarrutarra zan eta ama berritxuarra.

K.- Orduan ia osorik bizkaitarra.

A.- Kulturaz, errazaz eta ohitura berritxuarra naz, Berritxu inguruko izakera eta hizkuntzakoa.

Julen Urkiza